

## Merkataritza sektoreak EAeko langileen % 12,3 biltzen du

BILBO

Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) argitaratu berri duen 'Merkatal Sektoreko Kontuak' liburuan jasotzen denez, Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) biztanlego aktiboaren % 12,3k sektore honetan egiten du lan.

1990. urtean zerbitzu sektoreak EAeko Barne Produktu Gordinera ekarri zuenaren % 50,22 merkatal arloak lortu zuen.

Eustaten azterketak 1986-1988 epealdiko datuak jasotzen ditu, baina bertako iturriek adierazi dutenez, 1989 eta 1990. urteei dagozkienak «aurki» argitaratuko dira.

Azterketaren arabera, merkatal sektoreak 86.071 lanpostu barneratzen ditu EAEn eta hauetatik % 74,2k merkatal txikitzen egiten du lan. Era berean, sektore honek ekarritako balio erantsia 321.543 milioi pezetakoa da Eustaten esanetan, hau da, Barne Produktu Gordinaren % 12,6.

Diru kontuei helduz, merkatal sektoreko enpresek gestioatutako salmentak bilioi erdi pezeta ingurukoak direla baieztatzen du Eustaten azterketak.

## Merkatal hitzarmen bakarra eskatzen du CCOOek

IRUNEA

CCOO sindikatuak hitzarmen bakarra eskatzen du Nafarroako merkatal sektorearentzat. Sindikatuko iturrien arabera, sektore honek 8.500 langile barneratzen ditu Nafarroan eta hauek 15 hitzarmen kolektibo dituzte, 11 herrialdekoak eta 4 estatukoak.

CCOOren iritziz, hitzarmen egoteak «langileak kaltetzen ditu eta sektoreko arazoak areagotu». Merkatarien artean dagoen enplegu prekarioa (% 60tik gorakoa sindikatuaren arabera) eta lanbide heziketa arloaren bazterketa dira CCOOren ustez sektoreko arazorik larrienak.

Gainera, hitzarmen asko egoteak «soldata ezberdinak izatea» bultzatzen du sindikatuko iturrien arabera. «Gaur egun elikadura arloko 25 urteko dendari batek hileko 75.000 pezeta gordin irabazten dituen bitartean, metal arloko batek 107.000 pezeta irabazten ditu». CCOOek salatzen duenez, merkatal sektorean soldata eta lanpostu kategoriaz ezberdinak daude langilearen adinaren arabera, «eta hau Espainiako Konstituzioaren aurkakoa da argi eta garbi».

# Bizkaiko Diputazioak bazuen 7.000 milioiko iruzur sarearen berririk

Erakunde honek faktura faltsuak egiten zituzten 59 enpresa aurkitu ditu


**Bizkaiko Foru Hazienda BEZ faktura faltsuak egiten zituzten Sidem S.A. eta Sidem-2 S.A. enpresen iruzurraz ohartu zen 1990ean. Bi enpresa hauek Espainiako Poliziak aurkitu duen 7.000 milioi pezetako iruzur sare berriaren erantzule nagusiak dira.**

BILBO

Bizkaiko Diputazioak aurkitutako bi enpresa hauen berri eman zien gainontzeko administrazioei, Aitor Esteban Foru erakundeko bozeramaileak ziurtatu zuenez. Horiakin batera, faktura faltsuak egin edo jasotzen zituzten beste 179 enpresaren berri bazuela adierazi zuen Diputazioako eledunak, hauek Bizkaikoak eta beste lurraldekoen artean.

Estebanek azaldu zuenez, Diputazioak 1990ean ikertu egin zuen Sidem eta Sidem-2 enpresen iharduera, «enpresa fantasmak» zirelakoan. Halere, Diputazioako ordezkariak ez zuen zehaztu ikerketa horien emaitzak zeintzuk izan ziren, ezta honelako auzietan Diputazioak zein jokatibide izango duen ere bai.

Diputazioako ordezkariak ukatu egin zuen iruzur fiskal berri horren zati nagusia Euskal Herrian dagoenik, «euskal haziendek egiten dituzten ikerketak gehiago eta hobek» direla ziurtatuz. Haren ustez, gertatzen dena ez da Euskal Herrian iruzur gehiago egiten denik, baizik eta euskal haziendek hobeto ikertzen dituztela honelako delituak eta, ondorioz, errezago atzematen da iruzurra.



Bizkaiko Diputazioaren egoitza Bilbon.

### ESTATU OSOKO IRUZURRA

Bilboko bi enpresa horietaz gainera, Poliziak aurkitu duen sare berri honetan Espainiako beste hainbat enpresa daude sarturik eta iruzurra guztira 7.000 milioi pezetara iritsi da. Enpresa hauen zeregina faktura faltsuak egitea da, beste enpresei saltzeko, azken hauek zerga gutxiago ordaindu ahal izateko, faktura hauen bidez zergarako kenketak gehituz.

Bizkaiko Foru Haziendak herrialde honetan kokatutako 59 enpresa ikertu eta zigortu ditu orain arte faktura faltsuak egiteagatik soilik. Enpresa hauek 914 milioi zerga zof

diote Bizkaiko Diputazioari.

Iturri berek esan zuten, Sidem eta Sidem-2 enpresek ez dute egoitza fiskala Bilbon, Valladoliden baizik. Baina enpres iruzurgile hauek, beste herrialdeen artean, Bizkaian lan egiten zuten eta, horregatik, bertako Diputazioa jabetu ahal izan zen beraien azpijokoaz.

Orain arte Bizkaiko Diputazioak jakin ahal izan du bi enpresa hauek 31 bezero zituztela eta 600 milioi pezetako faktura faltsuak erosi zituztela. Honetaz, ikerketak egiten jarraitzen du erakunde honek, beste administrazioekin informazioa trukatu, «elkarrekin ulermen maila hona dagoelako».

## La Rochelleko arrantzuntziak Pasaiaiko portua erabiltzen dute

M.E. / BAIONA

Bordeletik 200 kilometrotara dagoen La Rochelle Poutou Charentes frantses erregioko portu famatuaren balantzea txarra izan zen joan zen urteari dagokionean, hango arrantzaleek Pasaia Donibane-ko portuan saltzen bait dute beren arraina.

La Rochelleko portuan 3.000 tona arrain gutxiago saldu zen iaz. 1990. urtean 10.000 arrain tona deskargatuak izan ziren. Beraz, iaz frantses arrantzaleek Pasaian deskargatu bait zuten, La Rochelle portuaren negozio kopurua apaldu zen, 1990eko 150 milioi liberak (2.775 milioi pezeta) 128 milioi liberara (2.368 milioi pezeta) pasatuz 1991. urtean.

Dirudienek, La Rochelle portuaren arrantzaleek Pasaia egokitzat atzematen dute, arraina garestiago saltzen bait da Pasaian Frantziako portuei alderatuz. Bestalde, La Rochelleko arrain saltokia birmoldatu beharra dago, sobera zaharra bait da. Aldiz, Pasaia-ko arrain saltokia modernoa eta egokiagoa atzematen dute.

Afera honek ohiartzun handia du arrantzale munduan, La Rochelle, Frantziako nahiko garrantzitsua bait da. Administrazioari dagokionez, arazo bat agertzen da ere, azken urteotan obra asko egin izan bait zen La Rochelleko portua hobetzeko.



## TOLOSako UDALA

Udal Plenoak, 1991ko abenduaren 20an egindako aparteko bilkuran, honako proiektuari hasierako onospena eman zion:

Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa 1.9 "Mustad" areari dagokiona.

Planeamendu Erregelamenduko 128 eta 151 artikuluetan xedatutakoaren arabera proiektua hilaibeteko informazio publikoan jartzen da.

Iragarki hau Gipuzkoako A.O.ean, Egunkaria eta Diario Vasco egunkarietan argitaratuko da, eta informazio publikorako epea azken argitarapen dataren biharamunetik zenbatuko da.

Aipatu epean, espedientearen jendearentzat agerian egongo da, Gorosabel Zaharreak kokaturiko Hirigintza Bulegoan, eta egin nahi diren alegazioak aipatu egoitzan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, Alkate-Lehendakari Jaunari zuzendurik.

Tolosa, 1992ko urtarrilaren 13an. ALKATEA



## TOLOSako UDALA

Udal Plenoak 1991ko abenduaren 20an egindako aparteko bilkuran, honako proiektuari hasierako onospena eman zion:

"Aldapako, S.L."-k sustatzen duen T.12 "Eskolalde. Kondeko Aldapa" Areari dagokion Xehetasuneko Estudioa.

Planeamendu Erregelamenduko 140 artikuluan xedatutakoaren arabera proiektua hilaibeteko informazio publikoan jartzen da.

Iragarki hau Gipuzkoako A.O.ean, Egunkaria eta Diario Vasco egunkarietan argitaratuko da, eta informazio publikorako epea azken argitarapen dataren biharamunetik zenbatuko da.

Aipatu epean, espedientearen jendearentzat agerian egongo da, Gorosabel Zaharreak kokaturiko Hirigintza Bulegoan, eta egin nahi diren alegazioak aipatu egoitzan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, Alkate-Lehendakari Jaunari zuzendurik.

Tolosa, 1992ko urtarrilaren 13an. ALKATEA



## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

ERREKTOREGOA

1992.eko Urtarrilaren 14eko datuz, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak Irakasle Lagunen kontratuak adjudikatzeko merezimendu-lehiaketa publikorako deialdia egin zuen. Aipaturiko Erabakiaren textuan errakuntza ikusi denez, dagokion zuzenketa egiten da.

### ERRAKUNTZEN ZUZENKETA

DIOENEAN:

Orden Zkia.: 94. Maila: Irakasle Laguna. Saila: Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika. Jakintz Arloa: Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika. Egin beharreko iharduerak: Ingeles Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika. **Arduraldia: astean 6 ordu.**

ESAN BEHAR DU:

Orden Zkia.: 94. Maila: Irakasle Laguna. Saila: Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika. Egin beharreko iharduerak: Ingeles Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika. **Arduraldia: astean 10 ordu.**

Leioan, 1992.eko Urtarrilaren 16an.  
Errektorea, Juan Jose Goirieta de Gandarias